

# ANDA ERRATZA

agartuko dira:

Mariaño: Etxeko anderia  
Josette: Marianoren iloba  
Mañaña: Neskatoa  
Katixa Banbala: auzoko emazte bat

## I

*Taulen gainean: tapiza-bat, mahi bat bere tapizarekin,  
kadera bat, fautoila bat.*

**MARIAÑO:** *(sartzen eta oihu egiten)* Mañaña! *(ixtan bat )* Mañaña! Mañaña!

**MAÑAÑA:** *(burua agertzen du)* Oihu egin duzu, Etxeko anderia?

**MARIAÑO:** Oihu egin dutanez?... Hamar, hogoi aldiz, araziz?

**MAÑAÑA:** Hauxe da tantoa! multiplikazionea ontsa ikhasi duzu naski eskolan!

**MARIAÑO:** Uste dut, zuk erran duzun hori eskolan ontsa ikhasi dutala! Eta bertze anhitz. Eta gero?

**MAÑAÑA:** Ah! gero erranen dauzut barkhamendurekin, hiruetan duzula oihu egin.

**MARIAÑO:** Jakin zazu Mañaña tuntuna, lehen oihuan behar zinukela lasterka jin!

**MAÑAÑA:** Lasterka! lasterka! aise ari zira zu, hogoi urthetan banintz bezala?

**MARIAÑO:** Zaude ixilik! *(ixtan bat eta emekio)* Errazu, Mañaña gaizua, zerbitzu handi bat eginen dautazia?

**MAÑAÑA:** Etxekandera, badakizu, zonbat nizan zuri atxikia, eta bethi zure erran guziak egiten ditudala!

**MARIAÑO:** Badakit! Badakit! Bainan galdegiten badutzut zerbitzu bat! zerbitzu bat!

**MAÑAÑA:** Bainan zer, Etxekandera?

**MARIAÑO:** *(hurbiltzen da)* Horra! *(erakusten du pixtolet bat. Mañaña gilatzen da)* Kapable zirea hunen ibiltzeko, eta tiro baten tiratzeko?

**MAÑAÑA:** *(harritua)* Ama maitia! Holako tresna baten ikusterak berak izitzen nu! Othoi polliki ibiltzazu!

**MARIAÑO:** Segur nintzan, sobera beldurtia zira, ez dut zure gainean khondatzen ahal etxearen zaintzeko.

**MAÑAÑA:** Nork uste duzu?...

**MARIAÑO:** Jakin zazu, tuntuna, sekulako ohoinen beldurra dutala egun hotan.

**MAÑAÑA:** Alon! alon! Etxekandera, ez othoi burua gal! Eta zendako sarthuko dira ohoinak?

**MARIAÑO:** *(aphaletik)* Behazite, Mañaña, orhoit zira, nola orai duela sei hilabeteko bat, ihortzi dugun Bertrantto!

**MAÑAÑA:** Zure oseba?

**MARIAÑO:** Ba, ene oseba Bertrantto! Gizagaizua; gizon huna zen; ondoko egina ninduen, eta egun diru poxibat hunkitu dut, eta ganbaran gorde.

**MAÑAÑA:** Eta orduan, zu beldur ohoinak jin diten ebasterat?

**MARIAÑO:** Hori bera Mañaña. Kasetetan ez duguia egun guziaz ikusten zonbat ohointza bazterretan!

**MAÑAÑA:** Ah! hori hala da! Joanden astean zarea ebatsi dautate epizerian.

**MARIAÑO:** Ba zare hutsa!

**MAÑAÑA:** Berdin munta du, bethea izan bazen bardin ebatsiko zautattan.

**MARIAÑO:** Zer dira oraiko epizeriako puxka hekiek, ene diru metaren aldian!

**MAÑAÑA:** Diru meta?!

**MARIAÑO:** Ba, diru meta! Ikhusten duzu arrazonik aski badutala ohoinen beldurraren ukhaiteko? Hortako hartua dut xedea, etxearen zaintzeko, tresnak eskuan.

**MAÑAÑA:** (*ikharan*) Ama saindua! Tresnak eskuan! Hortxetako hori bezalakoa?

**MARIAÑO:** Nork aiphatzen dauzu holako tresna, beldurti handia!

**MAÑAÑA:** Etxekanderia, ez hori! ez puñalarik! ez eta ere matrailletarik!

**MARIAÑO:** Bakia emazazu! Hautatuko dugu beste tresna bat eta azkarra. Gauza guti aski dute ohoinek ihesegiteko... Hautatuko dugu erhaz bat gothorra.

**MAÑAÑA:** (*irria ezin atxikiz*) Erhaz bat!

**MARIAÑO:** Eta harekin emanen duzu, hemen sartzen diren guzieri, zure bathere guziaz sekulako zanpa aldia.

**MAÑAÑA:** (*alegera*) Badakit erhatzaren berri aspaldian, eta horrekin ez niz ni nehoren beldur.

**MARIAÑO:** Ederki, Mañaña. Orai, banoa Garalat ene ilobaren biderat. (*jalitzerat johan da eta izultzen*) Ah! behar ez denik ez dadin gertha, holaxet joko dut borthan, lau aldiz. (*egiten du nola*)

**MAÑAÑA:** Ordian, lau aldi jotzen ez duenari; Panba!

**MARIAÑO:** Ontsa da! Sarri arte; beharriak eta begiak erne!

**MAÑAÑA:** Gustian egon zite, etxekanderia, sarri arte.

## II

**MAÑAÑA:** Hau huna diun! Erhatz ukhaldika behar dugula arizan! Erhatz ukhaldika behar dugula arizan! Ah! Erhatza. (*johan da erhatz baten xekha; biga ekhartzen ditu*) Huna biga bat hausten bada ere. (*xokho batean ezartzen ditu*). Beharrena ahanzten dut, bortharan gakhotzea. (*johan da hesterat, gibelerat heldu da eta jartzen*). Gaixo Mariaño! Kosketatik ari denez ahultzen? Beharre andere Josette heldu baita aferen xuxentzeko. (*ixtan bat*) Eta orai, ere Mañaña! Eta behar badu; anda erratza! (*iotzen dute. Mañaña xutitzen da. Khantuz ari da! Xo! xo! Mariaño!*) (*Berriz jotzen dute*) Hori ez dun Mariaño! Ohoin zonbeit othe da? (*altxatzen du erratza*) Atan! atan! mon petit! Jakinen duk ene erratzaren berri. (*Oihu egiten du*) Nor da hor? (*Boza bat*) Ni! ni! (*finki*)Ni! ni! Nor da hor? (*khanpotik boza bat*) Ni! Katixa Banbala!

Lehenik Katixa ez dun sekulan tenora huntan jiten. Eta gero, ez din iduri haren boza dela. Halarik ere zabal deagun bortha. (*idekitzen du eta gibelerat heldu lasterka*) Là! Aitzina! (*Norbait sartzen da. Boza bat Jesus! nun zira Mañaña? Mañaña aphaletik so egileri*) Tanpisse! segurrak ez du parerik! nor nahi izanik, kaskotik beheiti emaiten dakot! (*Norbaitek erakusten du burua, eta Mañañak emaiten dako erratza ukhaldi handi bat erpanez: Han!*)

**KATIXA:** Hel! Hel! othoi, Mañaña! Hiltzen nute. Ouah! ouah!...

**MAÑAÑA:** (*ohartu da nortzen*). Zer mila sorgin! Hauxe da tarrapata! Ez duzia sekulan erratz ukhaldi bat ukhan?

**KATIXA:** (*harritua*) Erratz ukhaldi bat!

**MAÑAÑA:** (*altxatzen du erratza sudurran azpian*) Ba, erratz ukhaldi bat!

**KATIXA:** Zuk emanik?

**MAÑAÑA:** Ba, nik emanik emazte demuntria!

**KATIXA:** Zer jenderi egiteko ongi ethorria! Zer lothu zautzu?

**MAÑAÑA:** Xo! Xo! Katixa. Berehala erranen dauzut, jar zite hor. Horra, berehala konprenituko duzu. Mariañok ukhan du diru meta bat, bere osaba Bertranttok utzirik, eta geroztik sekulako ohoinen beldurra du. Orduan galdegin daut hemen sartzen diren guzieri kaskoaren haustera erratz ukhaldika.

**KATIXA:** Ba, bainan etzin duena ene boza ezagutzen?

**MAÑAÑA:** Aise mintzo zira zu! Holakoetan, denborarik galdu gabe behar da jokatu. Eta ohoinek eskamiatu balute zure boza?

**KATIXA:** Egia da hori. (*burua thorratzen du*) Bainan emekixoño ibili bazinu zure erratza!  
**MAÑAÑA:** Bauzia burutik? Emekixoño! Nik ez badut ohoina talua bezala aurdikitzen, hak ni eginen nu! Ene buria maite gero nik!  
**KATIXA:** (*burua atxikitzen du*) Ba, nik ere.  
 (*borthan jo egiten dute*)  
**KATIXA:** Araa! Oraikotik ohoinak dira! (*mahi azpian gordetzen da*)  
**MAÑAÑA:** Bortha ez dut gakathu! Berdin munta du, ez dugu hortakotz lotsatu behar. (*hartzen du-erratza eta Katixak bertzia*) Zuk harrazu hori. (*hitz horiek erraiten ditu mahiari bizkarrez dola*)  
**KATIXA:** (*burua agertzen du mahiaren azpitik*) Uz nezazu, othoi, beldur niz!  
**MAÑAÑA:** Ta! ta! ta! ta! athera zite hortik eta ukhan beldurrik! (*Katixa jalitzen da errepski*) Har zazu errats hori eta hortaz eman. Eta gero eni, apuñatik; hé!  
**KATIXA:** (*ikharan*) Ba... ba... Eginen dut indar bat. (*buru bat agertzen da. Noitek kuku!*) (*une volée de coups de balai et Josette s'affale, valise et parapluie roulent.*)

### III

*Katixa et Mañaña se regardent piteusement, les mains appuyées sur le balai:*  
 Ori propioak giral!

**JOSETTE:** (*xutitzen da eta arranjatzen du xapela*) Ouf! Hauxe da errautsia! Bauzea burutik!  
**MAÑAÑA:** Barkhatu andere Josette... agur, andere Josette.  
**JOSETTE:** (*Mañaña bezala*) Agur, andere Josette! Pulinda handia! (*Katixari*) Eta zu sorgin zaharra!  
**KATIXA:** Barka zaazu, andere Josette, ez da ene falta, Mañañaren falta da.  
**JOSETTE:** Hortaz segur nintzan! üste duzia denak haizu direla zuretzat? Zer manera dire hok? Ez zirea puxka bat kaskotik xilo? (*zangoz jo egiten du*)  
**KATIXA:** (*eskua buruan, jenderi beha*) Nik segurik kaskoa xilo dut!  
**JOSETTE:** (*Mañañari*) Nun da Ttantta? Bi hitz behar dakot erran zure gainean.  
**MAÑAÑA:** Etxekanderia kanpoan da, joana da garalat zure biderat.  
**JOSETTE:** Ene biderat! nik ez dut ikhusi, segura elgar huts egin dugula (*ixtan bat*) Bainan errazu Mañaña, zer dire erratz ukhaldi horiek? Bauzia burutik...  
**MAÑAÑA:** Ah! hori ez! (*en scandant*) Nik ez dut burutik; zure ttanttak du burutik. (*coleran*) Eta gero asea niz kokorreano! Ez bazira kontent, zoazi ttanttari esplikazionen galdegiterat, azkenekotz nahi baduzu jakin, erratz ukhaldiak ukhan badituzu, zure ttanttak erranik ukhan dituzu! La!  
**KATIXA:** (*jenderi beha*) Orai ximixtak, sarri ortzantzak!  
**JOSETTE:** (*Mañañari*) Ttanttak erran duzula erratz ukhaldiak eni emaiteko? Eni! eni!  
**MAÑAÑA:** Hemen sartzen ziren guzieri.  
**JOSETTE:** Baina, errazu zertako?  
**MAÑAÑA:** Zertako? zertako? Zure ttanttak diru meta bat ukhan baitu, eta geroztik ohoinen beldur baita! Horra zertako!  
**JOSETTE:** Ah! horra zertako orai konprenitzen dut! Ez da ohoinzarik baizik bazterretan!  
**KATIXA:** Errazu berriz; aski da kaseta zabaltzea ikhusteko.  
**JOSETTE:** (*l'interrompant*) Zu zaude ixilik! (*Mañañari*) Ohoinen beldur zelakotz, ttanttak erran dauzu holako tanpakoan emaiteko. (*burua thorratzen du*)  
**MAÑAÑA:** Barkhazaazu, anderia!  
**JOSETTE:** Ba, ba, barkhatzen dautzut. (*ixtan bat*) Griña bat badut! Nolaz ez dudan ttantta garan ikhusi.  
**KATIXA:** Oh! anderia, ez uste izan zerbait gerthatu zaiala.  
**JOSETTE:** Nork daki? Behar bada ttantta garbiturik, ohoinak berehala hemen ditugu... Zer diozie?

**KATIXA:** Uste zia?

**MAÑAÑA:** Heu!...

**JOSETTE:** Beha zizte; Ohoinak ttantta garbitu ondoan, badaki ez dela hemen Mañaña beizik. Eta bandil baten kontra zer egin dezake emazte batek?

**MAÑAÑA:** Oh! anderia jadanik ikharetan niz!

**JOSETTE:** Ez othoi izi, Mañaña, hemen bagira hiru baten kontra. Berehala prepara gaiten! Erratz hori ez batere joko gaixtoa, bazinaki zer hartzen duen kaskoak? (*atxikitzen du burua eta Katixak ere bai*) Eta nik badut balisan, bertze zerbeitño! (*elle sort un pistolet qu'elle met sous le nez de Mañaña qui recule effrayée*)

**MAÑAÑA:** Jesus! Maria! Joseps!

**JOSETTE:** Zer zira beldur? Ez da kargatia, bainan ikhusten duzu zer efetia egiten dien, hau sudurraren aitzinean emaiten delarik! (*harrabots bat aditzen da borthako aldian*)

**MAÑAÑA:** Norbeit bada hor!...

**KATIXA:** Ez da deus.

**JOSETTE:** Zer gertha ere, prepara gaiten! Zu hor, Mañaña; zu aldiz hemen Katixa! Eta ni, hantxat mahainpian. Eta gero ez barkha! (*au moment où quelqu'un apparaît, coups de balai, Josette bondit. Un corps s'effondre et le chapeau de Mariaño roule sur la scène*)  
On entend! Ouff! (*tête des trois personnes*)

#### IV

**JOSETTE:** (*Hiruak lasterka, ttanttan altxatzeko*) Zer arizan gira! Mañaña, fite zerbieta bat eta ur xorta bat!

(*Mañaña jalitzen da. Bertze biak ezartzen dute Mariaño fotoil batean*)

**MAÑAÑA:** (*jalitzean*) Etzazula odol gaixtorik egin, anderia, zure ttanttak, zuk uste baino kasko gogorragoa du!

**JOSETTE:** Gaixo ttantta! (*Katixari*) kaskoa hautsi dakozie.

**KATIXA:** Egia da; nik segurik ene bothere guziaz eman dakot! Ohoina izan balitz!

**MAÑAÑA:** (*heldu da zerbieta eta urarekin, inharrosten du Mariaño*) Hé! Hé! Iritzar zite hortik. Etxekanderia! Etxekanderia! noiz harrotuko zira, egun ala bihar? (*Mariañok egiten du suspiro bat*) (*hiruak ukhurtzen dira*)

**JOSETTE:** Igitu da!

**KATIXA:** Ba, iduri zaut.

(*A ce moment Mariaño pousse un Aah! en s'étirant. Les trois reculent effrayées*)

**MAÑAÑA:** (*lehenik hurbiltzen da*) Hé! Hé! Ez zira hila? Puntsea eta hobe! Zer ixtorioak bertzenez! (*Eta Mariañon eskuak inharrosten ditu*) Hobeki zira! Ez dea hala?

**MARIAÑO:** (*suspiro batekin*) Ba... Zer gerthatu zaut?... Norbeitek burutik behiti eman daut!

**JOSETTE:** Oh! barkha, ttantta! Uste ginuen.....

**MARIAÑO:** (*erremetitzen da*) Orai orhoitzen niz! Erratz ukhaldiak!

**MAÑAÑA:** Hala da, Etxekanderia! Bulta huntan ez erratz ukhaldiz bertzerik etxe huntan.

**MARIAÑO:** (*Ikhusiz Josette*) To, Josette! Hi ere hemen? (*potta emaiten dako*) Piaia huna egin duna?

**JOSETTE:** Ba, eta guk elgar huts egin.

**MARIAÑO:** Huts egin? Hemen segurik ez! (*burua thorratzen du; Josettek eta Katixak ere bai*)

**MAÑAÑA:** Aithor dut eta bietan aithor, tira ahala eman dutala!

**KATIXA:** Bai eta nik ere.

**MARIAÑO:** Zuk ere Katixa.

**KATIXA:** Ba, ba, Mariaño.

**MARIAÑO:** Horiek oro hola, behar dugu bihotz sokhorri xorta bat. Josette, habil ene ganberalat; bufetan hatzemanen dun Benedictina botella bat; ekhar ekharran!

**MAÑAÑA eta KATIXA:** *(se passant la main sur la poitrine)* Benedictina! Benedictina! *(garrazi bat ganbarako aldetik)*

**MARIAÑO:** *(xutitzen da)* Zer da?

**JOSETTE:** *(harritua heldu)* Oh! ttantta, Oh! ttantta...

**MARIAÑO:** Bainan mirakuilu da?

**JOSETTE:** Ganbera guzia itzulipurdikatua da! Zure kesa ttipia puskatua, eta leihoa zabaldua!

**MARIAÑO:** leihotik! leihotik sarthu da ohoina!!! *(trenputxartzen da)*

**MAÑAÑA:** *(lañoki)* Ori, bortha leihoak behar badira zaindu dozena bat muthil neskato hartitzala Mariañok eta bertze dozena bat erratz azkarrak!